



ELDUAINGO UDALA
Udaletxea 1
20.493 Elduain
(Gipuzkoa)

EUSKAL HERRIA
BASQUE COUNTRY



2017ko IRAILAREN 26ko UDAL OSOKO OHIKO BILKURA

Elduainen, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deira, 2017ko irailaren 26an, arratsaldeko zazpi t'erdietan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Jose Angel Urkizu Odriozola Alkatearen lehendakaritzapean.

- Juan Ramon Gurrutxaga Lasa
- Goretzi Soroa Martinez

Ez da/dira batzarreratu

Maite Bizkarrondo Arzallus
Miren Amaia Askasibar Agirre

Bertan aurkitzen da, bilera honetarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamenduko foru diputatuak, 2017ko irailaren 25eko FA-980/2017 Foru Aginduaren bitartez, Elduaingo Udaleko Osoko Bilkura honen idazkari lanak egiteko mandatua jaso duen Iñaki Sainz Paredes eta zinpean ekitaldiaren berri jasotzen du.

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, lehendakariak, 19:30 ordu direnean, bilkura irekitzat eman eta gairerrendako puntuen azterketari ekiten zaio.

GAIEN ZERRENDA: KONTROLEKO ZATIA

[1.- Aurreko Bilkuretako akten onarpena](#)

[2.- Alkatetzak emandako ebazpenen berri ematea](#)

[3.- Erregu eta galderak \(bileraren bukaerarako atzeratu dira\)](#)

ALDERDI ERABAKITZAILEA:

[4.- Erretore etxean hitzartutako prezioan sei etxebizitza egin ahal izateko Donostiako Elizbarrutiarekin sinatu beharreko hitzarmen proposamena](#)

[5.- Erretore etxean hitzartutako prezioan sei etxebizitza egiteko aurreproiektua.](#)

[6.- EMA-k eskatuta, babes ofizialeko etxebizitzaren jabetza aldaketa eta hipotekaren subrogazioa baimentzeko proposamena](#)

[7.- Kataluniarekin Koordinazio-guneak eskatuta, Kataluniari elkartasuna adierazteko mozioaren onarpen proposamena](#)

KONTROLEKO ZATIA:

LEHENENGO PUNTUA:

UDAL BATZARREN AKTAK ONARTZEKO PROPOSAMENA

Aurreko akta agiriak banatu gabe daudenez, hurrengo bilerarako atzeratu da puntua.

BIGARREN PUNTUA:

ALKATETZAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Indarrean dagoen Udal Korporazioen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduko (2568/1986ko E.D. azaroaren 28koa) 42 artikuluan adierazten duen ondorioetarako, Batzarrari, ohiko azken bileraz gero, Alkatetzak eman dituen ebazpenak aditzera ematen zaizkio. Hain zuzen ere 2017/038tik 2017/059 dekretura doazenak, biak barne, eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.-

2017/038	Maiatzeko Ohiko Plenoa deialdia
2017/039	Ludoteka zerbitzua. Antolatzeko ebazpena
2017/040	Langilearen kontratazioa. Oinarrien onarpena
2017/040B	Langilearen kontratazioa. Mahaiaren izendapena
2017/041	Eliza. Obra baimena
2017/042	Behobi. Obra baimena
2017/043	Udaberri. Obra baimena
2017/044	Iñabe. Obra baimena
2017/045	Langilea kontratazioa. Lan eskaintzaren ebazpena.
2017/046	Diru-laguntzak. Kontseiluari ez emateko erabakia
2017/047	Gizarte Larrialdiak. MLB
2017/048	Gizarte Larrialdiak. MZO
2017/049	Gizarte Larrialdiak. AAA
2017/050	Ludoteka zerbitzuaren amaierako ebazpena
2017/051	Diru-laguntza. TKT emateko erabakia
2017/052	Kreditu Gehigarria. Hasierako onarpena
2017/053	Idazkari Akzidentala izendapenarako erabakia
2017/054	JLLO eskaeraren ebazpena.
2017/055	Arratxe. Obra baimena
2017/056	Festetan postu salmenta jartzeko baimena
2017/057	Sorregieta. Obra baimena
2017/058	Hutsik dauden Idazkari lanpostuak betetzeko deialdiko oinarriak onartu
2017/059	JLLO Ukuiluaren ebazpena



ELDUAINGO UDALA
Udaletxea 1
20.493 Elduain
(Gipuzkoa)

EUSKAL HERRIA
BASQUE COUNTRY



HIRUGARREN PUNTUA:
ERREGU ETA GALDERAK.

Bileraren bukaerako lagatzen da puntua.

ALDERDI ERABAKITZAILEA:

LAUGARREN PUNTUA:
**ERRETORE ETXEAN HITZARTUTAKO PREZIOAN SEI ETXEBIZITZA EGIN AHAL
IZATEKO DONOSTIAKO ELIZBARRUTIAREKIN SINATU BEHARREKO HITZARMEN
PROPOSAMENA.**

Alkateak azken hitzarmen zirriborroaren xehetasunak azaldu dizkie batzarkideei eta hauek aurrez ezagutu zuten testuarekiko aldaketa nabarmen batzuk antzeman dituzte.

Bestetik, zirriborro berri honen testuak, Donostiako Elizbarrutiaren behin betiko adostasunik ez du jaso.

Egoera honetan, gaia erabakitzeke mahaigainean uztea erabaki du Alkateak.

BOSGARREN PUNTUA:
**ERRETORE ETXEAN HITZARTUTAKO PREZIOAN SEI ETXEBIZITZA EGITEKO
AURREPROIEKTUA.**

Aurreko puntua bideratu bitartean, honako gaia ez bideratzea pentsatu dute bildutakoek, beraz, gaia erabakitzeke mahaigainean uztea erabaki du Alkateak.

SEIGARREN PUNTUA
**EMA-K ESKATUTA, BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAREN JABETZA ALDAKETA
ETA HIPOTEKAREN SUBROGAZIOA BAIMENTZEKO PROPOSAMENA.**

Eskatzaileak aurkeztutako eskritura zirriborroaren arabera, Herriko Planeamenduko Arau Subsidiarioen 1. Exekuzio Unitatearen higiezinaren jabetza aldaketa egin nahi du, egun Hirigunea 68, ezkerra zykiko Gure Ametsa du izena higiezinak.

Higiezin honen obra berriaren deklarazioa, jabetza horizontalaren eraketa eta esleipen eskritura, Tolosako M^a Valentina Montero Vilar Tolosako Notarioaren aurrean luzatu zen, 2004ko uztailaren 13an, eta notaritzako agiritegian jasota dago 714 protoloko

zenbakiarekin.

Aipatu eskrituran ondasun honi emandako balioa 118.089,30 €koa izan zen.

Eskritura honetan jasota dago bestalde, etxebizitza eskuz aldatuz gero Elduaingo Udalak 20 urteko epean lehentasunez eskuratzeko duen eskubidea. Udalak erosiz gero, eskrituratutako prezioa, KPIren aldaketen arabera doituta litzateke. 20 urteak pasata, etxebitza hauek erregimen askekoak bihurtuko dira.

Gai honi buruz Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatuak 2017/09/22ko datarekin idatzitako txostenaren berri eman du Alkateak.

Eta espedientea ikusita, bertaratutakoen ahobatez, ERABAKI DA:

LEHENA: Egin nahi den Hirigunea 68, ezkerria zikiko Gure Ametsaren higiezinaren jabetza aldaketaren aurrean, Arau Subsidiarioen 1. Exekuzio Unitatea, Elduaingo Udalak beren bedegi lehentasunez eskuratzeko eskubideari uko egitea.

BIGARRENA: Egingo den eskritura berrian, Elduaingo Udalak lehentasunez erosteko duen eskubidea berretsiko da eta eskritura sinatu ondoren, kopia aurkeztuko zaio Udalari agindutakoak bete direla agerian gera dadin.

ZAZPIGARREN PUNTUA

KATALUNIAREKIN KOORDINAZIO-GUNEAK ESKATUTA, KATALUNIARI ELKARTASUNA ADIERAZTEKO MOZIOAREN ONARPEN PROPOSAMENA.

Alkateak Kataluniaren Koordinazio-guneak Vidalita, udalean sarrera izan zuen idatziaren berri eman du eta irakurri egin du.

Idatzian, 2017ko urriaren 1erako deituta dagoen bozketa deialdiagatik, honako erabakiak hartzea eskatu dio Udalari:

- 1- Espainiar Gobernuak hasi duen errepresio bidea (atxiloketak, arlo ekonomikoan autonomia bertan behera uztea...), erabat gaitzestea eta arbuatzea.
- 2- Autodeterminazio eskubidea herri guztiei dagokien oinarritzko eta ezinbesteko eskubidea denez, Kataluniari bere etorkizuna erabakitze eskubide hori dagokiola aitortzea.
- 3- Kataluniako erreferendumarekin elkartasuna publikoki adieraztea.
- 4- Udaletxean Kataluniako ikurra jartzea.

Udalaren eskumen zuzeneko gaiekin zerikusirik ez duenez, Udalbatzarraren erabakiak inongo eragin juridikorik ez duela ohartarazi du idazkariak eta adierazpen

politiko hutsa bezala jo behar dela, inolaz ere mozioa.

Eta besterik gabe bozketa egin da eta bertaratutako zinegotzien ahobatez, ERABAKI DA:

LEHENA: Aurkeztutako idatzia aurkeztu izan den moduan onartzea.

BIGARRENA: Aurrekoaren ondorioz, honako erabakiak onartzea.

- 1- Espainiar Gobernuak hasi duen errepresio bidea (atxiloketak, arlo ekonomikoan autonomia bertan behera uztea...), erabat gaitzestea eta arbuiatzea.
- 2- Autodeterminazio eskubidea herri guztiei dagokien oinarrizko eta ezinbesteko eskubidea denez, Kataluniari bere etorkizuna erabakitzeko eskubide hori dagokiola aitortzea.
- 3- Kataluniako erreferendumarekin elkartasuna publikoki adieraztea.
- 4- Udaletxean / Batzar Nagusietan / Legebiltzar edo Parlamentuan Kataluniako ikurra jartzea.

(HIRUGARREN PUNTUAREN SEGIDA) ERREGU ETA GALDERAK.-

Puntu honetan, lehendakaritzak bertaratutakoei luzapena egiten die interesgarriak deritzotzen galde-eskeak egin ditzaten.

Ez da inongo erregu edo galderarik aurkezten.

Eta, 21.10 ordu direnean, lehendakariak batzarra amaitutzat jo zuen, eta gertatuakoaren berri agerian gera dadin akta hau prestatu eta sinatzen dut.

Elduain, 2017ko irailaren 26a.

O.e.
Alkateak

Idazkari-Kontuhartzaileak,